



www.uzturpe.eus



ERAIKIZ PROIETUA

Azken urtetako hausnarketek bultzatuta eta pedagogia korrante berriak aintzat hartuta, proiektu berri bati ekin genion 2015/2016 ikasturtean Uzturpe Ikastolan. ERAIKIZ PROIETUA pertsonon ongizatea helburu duen proiektua dela esan dezakegu, haurra gaitasunez beteriko pertsona dela oinarri hartuta eta munduaz ikasteko berezko gaitasuna duela sinetsita, lan egiteko moduak eta begiradak aldatzera datorrena.

Ez dugu zalantzarik, ongizateak testuinguru osasungarri baten beharra duela eta sistema hori familiek, ikastola komunitateak, antolaketa arkitektonikoez, materialez eta batez ere, berdinekiko harremanek baldintzatuko dutela. Aldi berean, ongizate horren zutabe dira hezkuntza prozesuko esku-hartzeak, hala nola, haurraren senei sentikortasunez eta egoki erantzutea; bere gaitasunak identifikatu, balioetsi eta erantzutea; eta zailtasunak hautemanda horiek kudeatzen laguntzea.

Eraikiz proiektuan, haurra da bere ikasketen protagonista, beren gaitasunak garatuko dituena eta bide horretan, nola ez, helduon laguntza jasoko duena. Izan ere, bere gogo, plazer, interes eta beharrezkoetatik abiatuta dauden jarduerak eta ekintzak autonomoak dira haurren ikaskuntza eta garapen psikomotor, afektibo, sozial zein kognitiboarako oinarri.

Haurrak airea bezain beste behar du jolasa, bizitzen ari den mundua ulertu eta kudeatzen ikasteko. Gure iritziz, jolasaren eta esperimentazioaren bitartez norberaren erritmoak errespetatzea lortzen da, autonomia, talde lana eta harremanak aberasten dira, baina eta, guztiaren gainetik, haurrak bizitzan beharrezkoa izango duen konfiantza garatuko da.

Konfiantza eta segurtasuneko testuingurua batean bertako helduekin atxikitzeko segurtasuna, ingurunea arakatzeko, berdinkideekin harreman aberasgarriak izateko eta ikasteko aukera izango dute, bere gaitasunak garatzea ahalbidetuz. Egiteko eta ekiteko motibazio eta ausardia konfiantzak ematen digula sinetsita, beraz, horixe da pedagogiaren oinarrian jarri duguna.

Laburbilduz, ERAIKIZ proiektua, hezkuntza gaur egungo gizartearen beharretara egokitzeko eta beraz hobetzeko asmotan martxan jarritako proiektu bat da, zeina egitearen ekinez eraikiko duguna.